



INFORMAZIO OSAGARRIA

Abereen lekualdatzea babesten duen dokumentazioa aldatu ahal izango da jatorrizko ustiapenaren osasun kalifikazio, lekualdatzen den abere mota eta ustiapen/establezimendu hartzailearen kokapenaren arabera.

Abereekin batera eraman behar den dokumentazioa:

1.- Lekualdatzeko oinarritzko dokumentua: **“Animaliaren Jatorri eta Osasun Gida”**

Bizitzeko animalien kasuan, gida horrekin batera, tuberkulosi, bruzelosi, leukosi eta perineumoniaren aurkako osasun frogak egin direla egiaztatzen duen albaitariaren ziurtagiria eramango da. Ohikoa da datu horiek gida barruan azaltzea, aurretik albaitariak datu baseetan sartu baditu.

Hiltzekoak diren animalien kasuan, aipatutako gidari **“Elikakateari buruzko informazioa”** izeneko dokumentua erantsi behar zaio, 361/2009 Errege Dekretuko II. Eranskinean ezartzen den bezala. Elikakateari buruzko informazioaren dokumentu hori edukitzek ez du esan nahi beste araudi batzuek eskatzen duten dokumentazio ofiziala eskura behar ez denik.

2.- Laguntza dokumentazioa:

Lehen aipatutako lekualdatze eta osasun dokumentazioaz gain, araudiak honako dokumentuak eskatzen ditu behiak lekuz aldatzeko:

- Gidan azaltzen diren behien **Behiak Identifikatzeko Agiriak (BIA)**.
- **Garraiolariaren eta garraio ibilgailuaren baimena**. Halaber, garraiorako ibilgailua ondo **desinfektatua** dagoela **egiaztatu** beharko da.